

CIRCULAR INFORMATIVA IMPORTE DE LAS GUARDIAS

Estimados/as compañeros/as:

Os informamos de los importes que se aplican a las guardias desde el segundo trimestre del 2026 y del criterio utilizado para su cálculo.

La dotación económica actual destinada al conjunto de las guardias por el Gobierno Vasco asciende a **1.701.176 € anuales**, equivalente a **425.294 € por trimestre**. Y esta es así desde el tercer trimestre del 2025, cuando se incrementa en 54.750€ la cantidad de 370.544€ trimestral, para reforzar las guardias.

No es hasta el primer trimestre del 2026 cuando se pone en marcha el actual servicio de Refuerzo de la asistencia letrada de guardia, en la que pasamos a tener las siguientes guardias:

A. D. Donostia:	6 guardias
A. D. Irún:	2 guardias
A. D. Azpeitia :	1 guardia
A. D. Eibar :	1 guardia
A. D. Tolosa:	1 guardia
A. D. Bergara:	1 guardia
Euskara:	1 guardia
Extranjería :	1 guardia
Menores:	1 guardia
Refuerzo A.D.	1 guardia
Donostia/Irún/Tolosa:	
Refuerzo A.D.	
Azpeitia/Bergara/Eibar:	1 guardia

Las cantidades incrementadas por el Gobierno Vasco para poner en marcha el turno refuerzo de la Asistencia letrada al detenido, se repartieron entre las 15 guardias de asistencia al detenido de los 6 partidos judiciales, euskara, Extranjería y menores, del cuarto trimestre del 2025 y primer trimestre del 2026. Al repartirse la dotación trimestral entre un número menor de guardias, el importe resultante por guardia se elevó de forma excepcional durante estos dos trimestres, hasta **315,03 €**.

INFORMAZIO-ZIRKULARRA GUARDIEN ZENBATEKOA

Lankide estimatuak:

2026ko bigarren hiruhilekotik aurrera guardiei zer zenbateko aplikatzen zaizkien eta zenbateko horiek kalkulatzeko zer irizpide erabili diren jakinarazi nahi dizuegu.

Eusko Jaurlaritzak gaur egun guardia guztietarako bideratzen duen zuzkidura ekonomikoa **1.701.176 eurokoa** da **urtean**, hau da, **425.294 euro hiruhileko bakoitzean**. Zuzkidura hori 2025eko hirugarren hiruhilekotik dago indarrean; ordura arte hiruhileko bakoitzeko bideratzen zen 370.544 euroko zenbatekoa 54.750 eurotan handitu zen, guardiak indartzeko.

Hala ere, 2026ko lehen hiruhilekora arte ez da abian jarri guardiako abokatu-laguntza indartzeko gaur egungo zerbitzua. Ordutik, honako guardia hauek ditugu:

Donostia:	Guardia 6
Irun:	Guardia 2
Azpeitia :	Guardia 1
Eibar :	Guardia 1
Tolosa:	Guardia 1
Bergara:	Guardia 1
Euskara:	Guardia 1
Atzeritartasuna:	Guardia 1
Adingabeak:	Guardia 1
Laguntza Indartzea	
Donostian Irunen eta Tolosan:	Guardia 1
Laguntza Indartzea Azpeitian	
Bergaran eta Eibarren:	Guardia 1

Eusko Jaurlaritzak handitu egin zituen atxilotuarentzako abokatu-laguntza indartzeko txanda martxan jartzeko zenbatekoak. Zenbateko horiek atxilotuari laguntzeko 6 barruti judizialeko 15 guardien artean, euskarako, atzeritartasuneko eta adingabeen guardien artean banatu ziren 2025eko laugarren hiruhilekoan eta 2026ko lehen hiruhilekoan. Hiruhilekoko zuzkidura guardia kopuru txikiago baten artean banatu zenez, guardia bakoitzeko

Desde el segundo trimestre, la misma dotación económica deberá distribuirse teniendo en cuenta el conjunto de las guardias que forman parte del servicio, incluidas las guardias de refuerzo. **No se trata, por tanto, de una reducción de la dotación económica destinada a las guardias, sino de un reparto diferente de la misma cantidad entre todas las guardias que deben ser retribuidas.**

Además, para evitar que el importe varíe de un trimestre a otro en función de que éste tenga 90, 91 o 92 días, a partir del próximo trimestre se establecerá un **importe fijo para todo el año**, calculado sobre la dotación anual de **1.701.176 €**.

Tomando como referencia el conjunto de las guardias previstas, incluidas las de refuerzo, el importe queda fijado en:

Guardia ordinaria: 274,16 €

Guardia de refuerzo sin asistencia: 137,08 €

Guardia de refuerzo con asistencia: 274,16 €

De este modo, la guardia de refuerzo en la que se produzca una asistencia tendrá la misma retribución que una guardia ordinaria, mientras que la guardia de refuerzo en la que no se produzca ninguna asistencia se abonará al 50 %.

A título informativo, el turno de refuerzo en Donostia/Irún/Tolosa cuanta con 76 compañeros y compañeras que tienen una media de 5 guardias anuales y el de Azpeitia/Bergara/Eibar, cuenta con 32 compañeros y compañeras que tienen una media de 11 guardias.

En consecuencia, el paso de los **315,03 €** del trimestre anterior a los **274,16 €** que se aplican, no debe interpretarse como una minoración del presupuesto destinado al servicio.

zenbatekoa salbuespenez handitu zen —**315,03 eurora** arte— bi hiruhileko horietan.

Bigarren hiruhilekotik aurrera, zerbitzua osatzen duten guardia guztien artean banatu beharko da zuzkidura ekonomikoa, indartze-guardiak barne. **Beraz, ez da guardietara bideratutako zuzkidura ekonomikoa murriztu; aitzitik, ordaindu behar diren guardia guztien artean beste modu batera banatu da zenbateko berbera.**

Gainera, zenbatekoa hiruhileko batetik bestera aldatu ez dadin —hiruhilekoak 90, 91 edo 92 egun izan ditzakeelako—, datorren hiruhilekotik aurrera **zenbateko finko bat ezarriko da urte osorako**, urteko **1.701.176 euroko** zuzkidura oinarritzat hartuta.

Aurreikusitako guardia guztiak kontuan hartuta, indartze-guardiak barne, honela finkatuko dira zenbatekoak:

Guardia arrunta: 274,16 €

Laguntzarik gabeko indartze-guardia: 137,08 €

Laguntza duen indartze-guardia: 274,16 €

Horrela, laguntza duten indartze-guardiak guardia arrunt baten ordainsari berbera izango du; laguntzarik gabeko indartze-guardien kasuan, berriz, % 50a ordainduko da.

Informazio gisa, indartze-txandan 76 lankide daude Donostia, Irun eta Tolosa artean, eta horiek urtean 5 guardia egiten dituzte batez beste; Azpeitiko, Bergarako eta Eibarko indartze-txandan, berriz, 32 lankide daude, eta urtean 11 guardia egiten dituzte batez beste.

Horrenbestez, aurreko hiruhilekoko **315,03 euroko** zenbatekotik gaur egun aplikatzen diren **274,16 euroetara** igaro izana ez da interpretatu behar zerbitzura bideratutako aurrekontuaren murrizketa gisa.